



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22



SINATZAILEA

Berako Udaleko Jarduneko Alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/11/22



herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005
31780 BERA
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus
bera@bera.eus

2023KO AZAROAREN 21eko BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2023-11-21.
Hasiera ordua: 19:30.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Ines R. Matxiarena Aldalur
Patxi Castillo Graciarena
Maria Guadalupe Mendigutxia Etxebeste
Jose Esteban Aguirre Zubietta
Adela Arlegi Goienetxe
Francisco Larrechea Lazcano
Estibaliz Pinacho Olaciregui
Angel Pombar Sainz
HERRIRAKO
Jose Antonio Oyarzabal Iribas
Andoni Andueza Intxaurreondo

ALKATEA (Bilkurako buru):
Aitor Elexpuru Egaña

KONTU-HARTZAILEA: Maria Dolores
Oyarzabal Zubietta

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea,
ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala
egindako deialdiaren gai-zerrendan sartu
zirenak):

1. AURREKO 3 BILKURETAKO AKTEN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera bidali ziren aurreko 3 bilkuretako aktei (2023-10-18, 2023-10-30 eta 2023-11-10). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartu dira aktak.

ACTA DE LA SESIÓN DE 21 DE NOVIEMBRE DE 2023.

Lugar: Casa Consistorial de Bera.
Día: 21-11-2023.
Hora comienzo: 19:30.
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

ASISTEN:

EH BILDU

Inés R. Matxiarena Aldalur
Patxi Castillo Graciarena
María Guadalupe Mendigutxia Etxebeste
José Esteban Aguirre Zubietta
Adela Arlegi Goienetxe
Francisco Larrechea Lazcano
Estibaliz Pinacho Olaciregui
Ángel Pombar Sainz
HERRIRAKO
José Antonio Oyarzabal Iribas
Andoni Andueza Intxaurreondo

ALCALDE (preside la sesión):
Aitor Elexpuru Egaña

INTERVENTORA: María Dolores Oyarzabal
Zubietta

SECRETARIO: Miguel José Belarra Tellechea,
levanta acta del acto.

ASUNTOS TRATADOS (incluidos en el orden
del día de la convocatoria realizada al efecto):

1.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LAS 3 SESIONES ANTERIORES.

Pregunta el alcalde si alguno/a de los/las concejales/as desea hacer alguna observación a las actas de las 3 sesiones anteriores (18-10-2023, 30-10-2023 y 10-11-2023), enviadas con la convocatoria. No se ha manifestado ninguna, aprobándose las actas **por unanimidad**.



BERA

AKTA 2023-11-21 (OSOKO BILKURA/PLENO) - SEFYCU 22714

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWHN 2YUJ QVAX M3RE

16tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22

Estibaliz Pinacho bileran sartu da.

2. 2024KO AURREKONTU OROKORRA. HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak aurrekontuaren laburpena azaldu du, gastuen zein diru-sarreraren adierazpena eginez eta gauzatu nahi diren erronka nagusiak azalduz.

Jarraian, kontu-hartzaileak informazioa osatu du, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legearen arau fiskalak aipatuz.

Hainbat aurrekontu-partidari buruz eztabaidatu dute.

Gero, idazkariak azaldu du aurrekontuaren espedienteak jarraitzen duen prozedura.

Azkenik, honako erabaki hau hartu dute **aho batez**:

Ikusirik 2024. ekitaldiko aurrekontu orokorraren proiektua, non Udalaren aurrekontua eta "Isidoro Fagoaga" Musika Eskolaren Patronatuarena sartzan baitira, baita Sastrako Kirol Zerbitzuak SL enpresa publikoaren gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenak ere.

Kontu-hartzailearen ahozko txostena eta idazkariaren txosten juridikoa aztertuta, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 201. eta 202. artikuluetan ezarritakoaren arabera, honako hau

ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2024. ekitaldiko aurrekontu orokorrari eta hura gauzatzeko oinarriei. Honako hau da laburpena:

Udala/ Ayuntamiento.

DIRUSARRERAK/INGRESOS:

Kapitulua/ Capítulo	Izenburua/ denominación	Zenbatekoa eurotan/ Importe euros
I	Zuzeneko zergak/ impuestos directos	1.444.760,34

Estibaliz Pinacho se incorpora a la reunión.

2.- PRESUPUESTO GENERAL 2024. APROBACIÓN INICIAL.

El alcalde ha dado cuenta del resumen del presupuesto, exponiendo tanto la previsión de gastos como de ingresos y los principales retos que se proyecta acometer en 2024.

A continuación, la interventora completa la información con una referencia a las reglas fiscales de la Ley de Estabilidad Presupuestaria.

Se ha debatido sobre diversas partidas presupuestarias.

Seguidamente, el secretario explica el procedimiento que sigue el expediente.

Finalmente, se adopta el siguiente acuerdo **por unanimidad**:

Visto el proyecto del Presupuesto General para el ejercicio de 2024, en el que se incluyen el presupuesto del Ayuntamiento y el del Patronato Escuela de Música "Isidoro Fagoaga", así como estados de previsión de gastos e ingresos de la empresa pública Sastrako Kirol Zerbitzuak, S.L.

Vistos informe verbal de la interventora e informe jurídico del secretario, y en base a lo establecido por los artículos 201 y 202 de la Ley Foral 2/1995, de Haciendas Locales de Navarra,

SE ACUERDA:

1.- Aprobar inicialmente el Presupuesto General para el ejercicio 2024 y sus Bases de Ejecución, siendo este su resumen:



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWHN 2YUJ QVAX M3RE

AKTA 2023-11-21 (OSOKO BILKURA/PLENO) - SEFYCU 22714Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

16tik 2 orrialdea



SINATZAILEA

Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005
31780 BERA
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus
bera@bera.eus

II	Zeharkako zergak/ impuestos indirectos	100.000,00
III	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk/ tasas, precios públicos y otros ingresos	429.367,39
IV	Transferentzia arruntak/ transferencias corrientes	1.928.372,55
V	Ondare-sarrerak eta aprobetxamenduak/ ingresos patrimoniales y aprovechamientos	32.008,11
VII	Kapital-transferentziak/ transferencias de capital	1.299.976,10
IX	Finantza-pasiboak/ pasivos financieros	118.758,39
	Dirusarrerak, guztira/ total ingresos	5.353.242,88

GASTUAK/GASTOS:

Kapitulua/ Capítulo	Izenburua/ denominación	Zenbatekoa eurotan/ Importe euros
I	Langile-gastuak/ gastos de personal	1.375.215,28
II	Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak/ gastos corrientes en bienes y servicios	1.361.415,12
III	Finantza-gastuak/ gastos financieros	10.420,04
IV	Transferentzia arruntak/ transferencias corrientes	790.470,69
VI	Inbertsio errealak/ inversiones reales	1.758.380,91
VII	Kapital-transferentziak/ transferencias de capital	26.100,00
IX	Finantza-pasiboak/ pasivos financieros	31.240,84
	Gastuak, guztira/ total gastos	5.353.242,88

Musika Eskolaren Patronatua/ Patronato Escuela de Música.

DIRUSARRERAK/INGRESOS:

Kapitulua/ Capítulo	Izenburua/ denominación	Zenbatekoa eurotan/ Importe euros
III	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk/ tasas, precios públicos y otros ingresos	92.000,00
IV	Transferentzia arruntak/ transferencias corrientes	264.341,20
V	Ondare-sarrerak eta aprobetxamenduak/ ingresos patrimoniales y aprovechamientos	5,00
VII	Kapital-transferentziak/ transferencias de capital	3.000,00
	Dirusarrerak, guztira/ total ingresos	359.346,20

GASTUAK/GASTOS:

Kapitulua/ Capítulo	Izenburua/ denominación	Zenbatekoa eurotan/ Importe euros
I	Langile-gastuak/ gastos de personal	326.766,20
II	Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak/ gastos corrientes en bienes y servicios	29.520,00
III	Finantza-gastuak/ gastos financieros	60,00
VI	Inbertsio errealak/ inversiones reales	3.000,00



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWHN 2YUJ QVAX M3RE

AKTA 2023-11-21 (OSOKO BILKURA/PLENO) - SEFYCU 22714

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

16tik 3 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22

Gastuak, guztira/ total gastos	359.346,20
--------------------------------	------------

2. Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egun balioduneko epean, aldeztatik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki-oholean iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak egin ditzan.

3. Ohartaraztea jendaurreko epealdian erreklamaziorik ez balego, aurrekontua behin betiko onetsizat hartuko dela.

Kontu-hartzailea bileratik atera da.

3. UDALEKO ETA "ISIDORO FAGOAGA" UDAL MUSIKA ESKOLAREN PATRONATUA ERAKUNDE AUTONOMOKO LANGILEEN PLANTILLA ORGANIKOA 2024. URTERAKO. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik 2024. urteko plantilla organikoaren espedientea, Udaleko eta "Isidoro Fagoaga" Udal Musika Eskolaren Patronatua erakunde autonomoko langileek barnean hartzen dituen.

Idazkariaren txosten juridikoa eta kontu-hartzailearen txostena kontuan hartuta.

Kontuan izanik aplikagarria den araubide hau: Nafarroako Toki Administrazioako 6/1990 Foru Legearen 235. artikulua; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 201. eta 202. artikulua; 251/1993 Foru Dekretu Legegilearen (Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langilearen Estatutuaren Testu Birbildua) 19. eta 20. artikulua; Euskarari buruzko 18/1986 Foru legearen 15.2 artikulua; 103/2017 Foru Dekretuaren 22. eta 28. artikulua (euskararen erabilera arautzen du Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan),

aho batez ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea Udaleko eta

2.- Exponer el expediente al público por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios municipal, a fin de que quien quiera pueda examinarlo y formular reclamaciones.

3.- Advertir que, si en el periodo de exposición pública no se formularan reclamaciones, el presupuesto se entenderá definitivamente aprobado.

La interventora abandona la reunión.

3.- PLANTILLA ORGÁNICA DEL PERSONAL DEL AYUNTAMIENTO Y DEL ORGANISMO AUTÓNOMO PATRONATO ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA "ISIDORO FAGOAGA" PARA EL AÑO 2024. APROBACIÓN INICIAL.

Visto el expediente de la plantilla orgánica de 2024, que incluye al personal del Ayuntamiento y del organismo autónomo Patronato Escuela Municipal de Música "Isidoro Fagoaga".

Considerando el informe jurídico del secretario y el informe de Intervención.

Teniendo en cuenta la siguiente normativa de aplicación: artículo 235 de la Ley Foral 6/1990, de la Administración Local de Navarra; artículos 201 y 202 de la Ley Foral 2/1995, de Haciendas Locales de Navarra; artículos 19 y 20 del D.F.L. 251/1993, por el que se aprueba el Texto Refundido del Estatuto del Personal al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra; artículo 15.2 de la Ley Foral 18/1986, del Euskera; artículos 22 y 28 del Decreto Foral 103/2017, por el que se regula el uso del euskera en las administraciones públicas de Navarra, sus organismos públicos y entidades de derecho público dependientes,

por unanimidad SE ACUERDA:

1.- Aprobar inicialmente la plantilla



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/11/22

BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWHN 2YUJ QVAX M3RE

AKTA 2023-11-21 (OSOKO BILKURA/PLENO) - SEFYCU 22714

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

16tik 4 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22



SINATZAILEA

Berako Udaleko Jarduneko Alkatea.
AITOR ELEXPURUJ EGAÑA
2023/11/22

"Isidoro Fagoaga" Udal Musika Eskolaren Patronatua erakunde autonomoko langileen 2024rako plantilla organikoari, espedienteen jasotako edukiarekin. Euskara jakitea nahitaezkoa izanen da organismo autonomo eta Udaleko edozein lanpostu eskuratzeko, funtzionarioenak zein kontratatuenak, finkoak edo aldi batekoak; lanpostu guztiei esleituko zaie Bortzirietako Euskara Mankomunitateak plantilla organikoetako lanpostuen hizkuntza eskakizunei buruz egindako txostena aplikatzearen ondoriozko euskara maila.

2. Jendaurrean jartzea espedienteen 15 eguneko aldiaren, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki-taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea jendaurreko epealdian erreklamaziorik ez balego, plantilla behin betiko onetsizat hartuko dela eta haren laburpena argitaratuko dela.

4. UDAL-ZERGEN ZERGA-TASAK 2024KO EKITALDIRAKO.

Kontu-hartzaileak adierazi du tartea dagoela legearen barruan %2 igotzeko udal zerga batzuen tasa.

Gero, espedienteak jarraitu beharreko prozedurari buruzko aipamena egin du idazkariak.

Jarraian, ondoko erabaki hau hartu da:

Kontu-hartzaileak eta idazkaritzak egindako txostenak ikusirik, eta kontuan izanik Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 64. artikulua araberak, udal zergen zerga-tasen aldaketak onetsi behar direla ondorioak izango dituzten urtea hasi baino

orgánica de 2024 del personal del Ayuntamiento y del organismo autónomo Patronato Escuela Municipal de Música "Isidoro Fagoaga", con el contenido que obra en el expediente. El conocimiento del euskera será preceptivo para acceder a todos los puestos de trabajo del Ayuntamiento y organismos autónomos, tanto de personal funcionario como de personal contratado, fijo o temporal; se asigna a todas las plazas el nivel de euskera resultante de la aplicación del informe de la Mancomunidad de Euskera de Bortzirriak sobre los perfiles lingüísticos de los puestos de trabajo de las plantillas orgánicas.

2.- Exponer el expediente al público por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios municipal, a fin de que quien quiera pueda examinarlo y formular reclamaciones.

3.- Advertir que, si en el periodo de exposición pública no se formularan reclamaciones, la plantilla se entenderá definitivamente aprobada y se procederá a publicar un resumen de la misma.

4.- TIPOS IMPOSITIVOS DE IMPUESTOS MUNICIPALES PARA EL EJERCICIO 2024.

La interventora informa que, dentro de los límites legales, existe margen para incrementar un 2% los tipos de algunos impuestos municipales.

El secretario explica a continuación el procedimiento que debe seguir el expediente.

Seguidamente, se adopta el siguiente acuerdo:

Vistos los informes de interventora y secretario, y teniendo en cuenta que, según el artículo 64 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales de Navarra, las modificaciones de los tipos impositivos de los impuestos municipales deben ser aprobadas antes del inicio del año en





SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22



SINATZAILEA

Berako Udaleko Jarduneko Alkatea.
AITOR ELEXPURU FEGANA
2023/11/22

lehen,

aho batez ERABAKI DA:

1. Zerga-tasa hauek onestea 2024rako:

- Lurraldeko kontribuzioa, %0,26.
- Izaera urbanoko terrenoen balio gehikuntzaren gaineko zerga, %19,52. Gehikuntza errealaren zenbatekoa finkatzeko, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175. artikuluan agertzen diren gehieneko koefizienteak aplikatuko dira.
- Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga, %5ean mantendu.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga, 1,40 indizea mantendu.

2. Erabaki hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki-taulan.

5. TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN TARIFAK 2024KO EKITALDIRAKO. HASIERAKO ONESPENA.

Tasak eta prezio publikoak %2 batean igotzea proposatu da, hirigintza-izapideak egiteagatik tasak izan ezik, horiek indarrean dauden zenbatekoetan mantentzen baitira.

Idazkariak espedienteak jarraitu beharreko prozedurari buruzko aipamena egin du eta ohartarazi du Musika Eskolako tarifen sistema ez datorrela bat Nafarroako Toki Administrazioako 6/1990 Foru Legearen 189. artikuluan eta Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduko —1955eko ekainaren 17ko Dekretua— 150. artikuluan xedatutakoarekin.

Jarraian, ondoko erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Tasa eta prezio publikoen tarifak 2024rako aldatzeko espedientea.
- Kontu-hartzaileak eta idazkaritzak emandako txostenak.

que hayan de surtir efecto,

por unanimidad SE ACUERDA:

1.- Aprobar los siguientes tipos impositivos para 2024:

- Contribución Territorial, 0,26%.
- Impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana, 19,52%. Para determinar el importe del incremento real se aplicarán los coeficientes máximos del artículo 175 de la Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra.
- Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, mantenerlo en el 5%.
- Impuesto de Actividades Económicas, mantener el índice 1,40.

2.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios municipal.

5.- TARIFAS DE TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS PARA EL EJERCICIO 2024. APROBACIÓN INICIAL.

Se propone incrementar un 2% las tasas y precios públicos, a excepción de las tasas por la realización de tramitaciones urbanísticas, que se mantienen en los importes vigentes.

El secretario explica el procedimiento que debe seguir el expediente y advierte que el sistema de tarifas de la Escuela de Música no se ajusta a lo establecido por el artículo 189 de la Ley Foral 6/1990 de la Administración Local de Navarra y el artículo 150 del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales, Decreto de 17 de junio de 1955.

Seguidamente, se adopta el siguiente acuerdo:

Visto:

- El expediente de modificación de las tarifas de las tasas y precios públicos para 2024.
- Los informes emitidos por interventora y secretario.



BERA

AKTA 2023-11-21 (OSOKO BILKURA/PLENO) - SEFYCU 22714

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWHN 2YUJ QVAX M3RE

16tik 6 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22



SINATZAILEA

Berako Udaleko Jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURUJ EGAÑA
2023/11/22

- Gai baten alderdi partzialen arauketa izanik, egin gabe utz daitekeela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 133.1 artikulua arautzen duen aurretiko kontsulta publikoa.

Kontuan izanik Nafarroako Toki Administrazioko 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua eta Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 13. artikulua xedatzen dutena,

aho batez ERABAKI DA:

1. Hasiara batean onestea honako prezio publiko eta tasen tarifen aldaketa 2024. ekitaldirako, espedientean ageri den edukiarekin (%2ko igoera):

- Bide publikoko lurpea, hegalkina eta lurzorua aprobetxamendu bereziengatikotasak.
- Agiriak tramitatu eta luzatzeagatikotasak.
- Udal kirol instalazioak erabiltzeagatikotasak.
- Jarduera zein irekitze baimenengatikotasak.
- Animalia arriskutsuak eta bestelakoak edukitzeagatikotasak.
- Musika Eskolako tasak.
- Saneamendu eta ur-hornidurarengatikotasak.

2. Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 eguneko epealdian, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki-taulan iragarri ostean, herritarrek eta bidezko interesa dutenek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

3. Ohartaraztea hasierako onespen hau behin betikoan bilakatuko dela, baldin eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkezten ez bada. Kasu horretan, ondorio juridikoak

- Que se trata de la regulación de aspectos parciales de una materia, por lo que puede omitirse la consulta pública previa del art. 133.1 de la Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990 de la Administración Local de Navarra y el artículo 13 de la Ley Foral 2/1995, de Haciendas Locales de Navarra,

por unanimidad SE ACUERDA:

1.- Aprobar inicialmente la modificación de las tarifas de las siguientes tasas y precios públicos para el ejercicio 2024, con el contenido que obra en el expediente (incremento del 2%):

- Tasas por aprovechamientos especiales del suelo, vuelo y subsuelo de la vía pública.
- Tasas por tramitación y expedición de documentos.
- Tasas por utilización de instalaciones deportivas municipales.
- Tasas por licencias de actividad y apertura.
- Tasas por tenencia de animales potencialmente peligrosos.
- Tasas de la Escuela de Música.
- Tasas de abastecimiento de agua y saneamiento.

2.- Exponer este acuerdo al público, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios municipal, por plazo de 30 días, para que vecinos/as e interesados/as legítimos/as puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones.

3.- Advertir que este acuerdo de aprobación inicial pasará a ser definitivo en el caso de que no se formularan reclamaciones, reparos u observaciones. En este caso, para la





SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELENBURU FEGANA
2023/11/22

sortzeko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da gertaera hori, behin betiko testuarekin batera, eta argitaratze datan hartuko du indarra.

4. Nafarroako Gobernuaren Ordenantza Fiskalen Erregistrora bidaltzea aldaketa hauek, behin betiko onespena gauzatu ondoren.

6. 10. POLIGONOKO 150. PARTZELAKO XEHETASUN-AZTERKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Ikusirik:

- 10. poligonoko 150. partzelako (Eztegara pasealekua, 22) xehetasun-azterketa, etxebizitzaren energia-eraginkortasuna hobetzea xede, fatxadaren antolamendua arautuz balkoiak itxi ahal izateko. Sustatzailea Comunidad de Propietarios Eztegara pasealekua 22 da. Dokumentua Ander Rodriguez Korta arkitektoak idatzi zuen.

- Nasuvinsako arkitektoak, Udaleko aholkulariak, 2023ko irailaren 4an egindako txostena, zeinak xehetasun azterlanari hasierako onspena ematearen aldeko iritzia eman baitzuen, behin betiko onartu aurretik dokumentazio gehigarria aurkezteko eskatuz.

- Udal idazkariak 2023ko irailaren 12an egindako txosten juridikoa.

Kontuan izanda:

- Agiria hasiera batean onartu zela irailaren 20ko 282/2023 Alkatezaren Ebazpenaren bidez.

- Espedientea jendaurrean jarri zela, iragarki argitaratuz NAOn, prentsan eta iragarki oholean.

- Espedientea jendaurrean egon zen epealdian ez zela alegaziorik aurkeztu.

- Sustatzaileak aurkeztu zuela xehetasun

producción de efectos jurídicos, se publicará tal circunstancia, junto con el texto definitivo, en el Boletín Oficial de Navarra, fecha en la que entrará en vigor.

4.- Remitir estas modificaciones al Registro de Ordenanzas Fiscales del Gobierno de Navarra, una vez realizada la aprobación definitiva.

6.- ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA 150 DEL POLÍGONO 10. APROBACIÓN DEFINITIVA.

Visto:

- El Estudio de Detalle de la parcela 150 del polígono 10 (Eztegara pasealekua, 22), para mejorar la eficiencia energética de las viviendas, regulando la ordenación de la fachada para la operación de cierre de balcones. La promotora es la Comunidad de Propietarios Eztegara pasealekua 22. El documento está redactado por Ander Rodriguez Korta, arquitecto.

- El informe técnico emitido por la arquitecta de Nasuvinsa, asesora del Ayuntamiento, el 4 de septiembre de 2023, que informó favorablemente la aprobación inicial del Estudio de Detalle, requiriendo la presentación de documentación adicional previamente a la aprobación definitiva.

- El informe jurídico emitido por el secretario municipal el 12 de septiembre de 2023.

Teniendo en cuenta que:

- El documento se aprobó inicialmente por Resolución de Alcaldía 282/2023, de 20 de septiembre.

- El expediente se sometió a exposición pública mediante publicación de anuncios en el BON, prensa y tablón de anuncios.

- No se presentaron alegaciones durante el periodo de exposición pública.

- La promotora presentó anexo al Estudio



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWHN 2YUJ QVAX M3RE

AKTA 2023-11-21 (OSOKO BILKURA/PLENO) - SEFYCU 22714

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

16tik 8 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELENBURU EGAÑA
2023/11/22

azterlanaren eranskin bat Nafarroako Planeamenduaren Erregistroa eta Nafarroako hirigintza eta lurralde plangintzarako tresnak aurkezteko formatua arautzen dituen urriaren 16ko 253/2019 Foru Dekretuaren 9.2 c) artikulua eskatzen duen informazio geografiko bektorialarekin.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63., 72. eta 74. artikuluekin bat etorritz,

aho batez ERABAKI DA:

1. Behin betiko onespina ematea 10. poligonoko 150. partzelako (Eztegara pasealekua, 22) xehetasun-azterketari.

2. Behin betiko onespina hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

3. Hirigintza-izapideak egiteagatiko tasak likidatzea, Ordenantza fiskal arautzailearen arabera.

4. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari.

5. Erabaki hau helaraztea Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari, onartutako agiriarekin eta emandako txosten teknikoekin batera, gehienez ere 10 eguneko epean.

7. OIHAN ENKANTEA NAFARROAKO ONURA PUBLIKOKO MENDIEN KATALOGOKO 638 ETA 639 ZENBAKIKO MENDI KOMUNALETAN, "USATEGIETA", "OTSANDA", "IRUNSORO" ETA "IBARDIN" PARAJEAK.

Ikusirik Nafarroako Onura Publikoko Mendi Katalogoko 638 eta 639 zenbakietako mendietan lote honen oihan-aprobetxamendua egiteko espediente:

de Detalle con la información geográfica vectorial requerida por el artículo 9.2 c) del Decreto Foral 253/2019, de 16 de octubre, por el que se regula el Registro de Planeamiento de Navarra y el formato de presentación de los instrumentos de planificación urbanística y territorial de Navarra.

De conformidad con lo establecido por los artículos 63, 72 y 74 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, que aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo,

por unanimidad SE ACUERDA:

1.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle de la parcela 150 del polígono 10 (Eztegara pasealekua, 22).

2.- Publicar esta aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Navarra.

3.- Liquidar las tasas por realización de tramitaciones urbanísticas, conforme a la Ordenanza Fiscal reguladora.

4.- Notificar este acuerdo a la promotora.

5.- Trasladar este acuerdo, junto con el documento aprobado y los informes técnicos emitidos, a la Dirección General de Ordenación del Territorio del Gobierno de Navarra, en el plazo máximo de 10 días.

7.- SUBASTA FORESTAL EN MONTES COMUNALES Nº 638 Y 639 DEL CATÁLOGO DE MONTES DE UTILIDAD PÚBLICA DE NAVARRA, PARAJES "USATEGIETA", "OTSANDA", "IRUNSORO" E "IBARDIN".

Visto el expediente de aprovechamiento forestal de 1 lote en los montes comunales números 638 y 639 del Catálogo de Montes de Utilidad Pública de Navarra:





SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/11/22

*** LOTE BAKARRA.**

- Parajeak: Usategieta, Otsanda, Irunso, Ibardin.

- Espezieak: P. nigra (larizio), p. strobilus (strobilus), l. kaempferi (alertz).

- Ondoak: 2.376.

- Zuraren bolumena: 959,94 m³.

- Egur txiki/egur bolumena: 391,64 m³.

- Bolumena, guztira: 1.351,58 m³.

- Balorazioa, 30.011,34 €.

Kontuan hartuta Baso eta Ehiza Zerbitzuko zuzendariaren irailaren 29ko 193/2023 Ebazpenaren bidez baimendu zela aipatutako baso-aprobetxamendua.

Azaldutakoan oinarrituta, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 166.1 artikuluan, Nafarroako toki araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru Legearen Bosgarren Xedapen Gehigarrian, eta Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 88. artikuluan xedatutakoaren arabera,

aho batez ERABAKI DA:

1. Basoko lotearen aprobetxamendua enkante publiko bidez saltzea, gutun-azal itxiko prozeduraren bidez.

2. Esleipena arautuko duen baldintza ekonomiko-administratiboen plegua onestea.

3. Enkante honen iragarkia argitaratzea Nafarroako Kontratazio Atarian, Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietako batean edo gehiagotan, Udaletxeko iragarki-oholean eta udalaren webgunean.

4. Enkantea hutsik geratzen bada, atera bigarren eta hirugarren enkanteetan, %10eko eta %20ko beherapenarekin, hurrenez hurren.

*** LOTE ÚNICO.**

- Parajes: Usategieta, Otsanda, Irunso, Ibardin.

- Especies: P. nigra (laricio), p. strobilus (strobilus), l. kaempferi (alerce).

- Pies: 2.376.

- Volumen de madera: 959,94 m³.

- Volumen de tronquillo/leña: 391,64 m³.

- Volumen total: 1.351,58 m³.

- Valoración, 30.011,34 €.

Teniendo en cuenta que por Resolución 193/2023, de 29 de septiembre, del director del Servicio Forestal y Cíenético, se autoriza el aprovechamiento forestal reseñado.

En base a lo expuesto, y de conformidad con lo dispuesto por el artículo 166.1 de la Ley Foral 6/1990, de la Administración Local de Navarra, en la Disposición Adicional Quinta de la Ley Foral 11/2004, para la actualización del régimen local de Navarra, y artículo 88 de la Ley Foral 2/2018, de Contratos Públicos,

por unanimidad SE ACUERDA:

1.- Vender el aprovechamiento del lote lotes forestal mediante subasta pública, por el procedimiento de pliego cerrado.

2.- Aprobar el pliego de condiciones económico-administrativas que registrá para la adjudicación.

3.- Publicar anuncio de esta subasta en el Portal de Contratación de Navarra, en uno o más diarios de los que se publican en la Comunidad Foral, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y web municipal.

4.- Si quedara desierta la subasta, sacarlo en segunda y tercera subasta con el 10% y el 20% de rebaja, respectivamente.



BERA

Egiatzapen-aseguru kodea: 3AAA AWHN 2YUJ QVAX M3RE

AKTA 2023-11-21 (OSOKO BILKURA/PLENO) - SEFYCU 22714

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/> 16tik 10 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22



SINATZAILEA

Berako Udaleko Jarduneko Alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/11/22

8. 2023KO AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Alkateak aurkeztu ondoren, **aho batez ONETSI DA** adierazpen instituzional hau:

AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. Ikusi duzu? Geldi ezazu!

Duela 24 urte Nazio Batuen Batzarrak azaroaren 25a Emakumeen aurkako edozein indarkeria mota desagerrarazteko nazioarteko Eguna deklaratu zuen eta gaur, beste behin, indarkeria horren egiturazko izaera agerian jartzea beharrezkoa da. Indarkeria fisikoa, psikikoa, ekonomikoa, sexuala, feminizidioa, salerosketa, sexu-esplotazioa, mutilazio genitala, behartuta edo oso gaztetan egindako ezkontzak emakume eta neskek pairatzen duten indarkerien agerpen batzuk besterik ez dira. Giza eskubideen urraketa argia da, kausak sistema patriarkalean oinarritzen dituena, desberdintasunak betikitzen dituena eta mekanismo eta praktika sozial eta kulturalen bidez erreproduzitzen den botere egitura batean oinarritzen dena, emakumeen aurkako indarkeria ahalbidetuz eta normalizatuz.

2003tik, Espainian erregistro ofizialak daudenetik, bikotekideek edo bikotekide ohiek 1.236 emakume erail dituzte, 2,8 milioi neskek eta emakumek pairatu dute sexu-indarkeria bizitzako uneren batean, sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimen % 84 emakumeak dira eta sexu-indarkeriako delitu horien arduradunak gizonak dira % 96an. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren datuen arabera, Nafarroan 2022an % 25 gehiago izan ziren sexu-askatasunaren aurkako auziak, eta % 94 gehiago sexu-erasoak. Era berean, 16 urtetik beherakoen aurkako sexu-erasoak % 166 igo ziren, aurreko urtearekin alderatuta.

Zifra horiek adierazten dute emakumeen aurkako indarkeria, eta zehazki sexu-indarkeria,

8.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL 25 DE NOVIEMBRE DE 2023.

Tras su presentación por el alcalde, **por unanimidad SE APRUEBA** la siguiente declaración institucional:

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL 25 DE NOVIEMBRE. ¿Lo ves?, ¡Páralo!

Hace 24 años que la Asamblea de Naciones Unidas declaró el 25 de noviembre como el Día Internacional para la erradicación de cualquier forma de violencia contra las mujeres y hoy, una vez más, es necesario poner el foco en el carácter estructural de esta violencia. La violencia física, psíquica, económica, sexual, el feminicidio, la trata, la explotación sexual, la mutilación genital, los matrimonios forzados o a edad temprana, son solo algunas de las manifestaciones de las violencias que sufren las mujeres y las niñas. Esto supone una clara vulneración de los derechos humanos que fundamenta sus causas en el sistema patriarcal, que perpetúa las desigualdades y se asienta en una estructura de poder que se reproduce a través de mecanismos y prácticas sociales y culturales, posibilitando y normalizando la violencia contra las mujeres.

Desde 2003, año en el que existen registros oficiales en España, 1.236 mujeres han sido asesinadas por su pareja o expareja, 2,8 millones de niñas y mujeres han sufrido violencia sexual en algún momento de su vida, el 84% de las víctimas de delitos contra la libertad sexual son mujeres y el 96% de los responsables de estos delitos de violencia sexual son hombres. De acuerdo a los datos de la Fiscalía General del Estado, en Navarra en el 2022 se produjeron un 25% más de asuntos contra la libertad sexual, y un 94% más de agresiones sexuales. Así mismo se dio un crecimiento del 166% en agresiones sexuales a menores de 16 años con respecto al año anterior.

Estos son solo algunas cifras que ilustran cómo la violencia contra las mujeres, y de



BERA

AKTA 2023-11-21 (OSOKO BILKURA/PLENO) - SEFYCU 22714

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWHN 2YUJ QVAX M3RE



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22



SINATZAILEA

Berako Udaleko Jarduneko Alkatea.
AITOR ELEXPURU EGANÍA
2023/11/22

gure gizarteko arlo guztietan dagoela, eta badakigu askotan ez direla salatzen eraso horiek. Indarkeria hori bikote-harremanetan, etxean, eremu digitaletan, kirolean, politikan, komunikabideetan, lan-esparruan, elkarteetan, aisialdiko guneetan, kaleetan... agertzen da, eta oinarri ditu, besteak beste jarrera matxisten normalizazioa, diskurtso negazionistak eta gizonen konplizitate edo axolagabekeria. Horiek denak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erdiesteko feminismoak lortutako aurrerapenekiko erresistentziak dira.

Emakumeen aurkako indarkeria jokamolde askoren normalizazioaren bidez betikotzen da. Egunero ikusi eta entzuten ditugu honelako komentarioetan: “orain ligatzeko kontratu bat sinatu behar da”, “muxu bat besterik ez zen izan, ez da hainbesterako!”, “ezin zaizue ezer ere esan, dena da iraingarria zuendako!”, etab. Horiek indarkeriarekin konplizeak diren diskurtso negazionisten adibide batzuk besterik ez dira, eta berdintasun erreal eta eraginkorra erdiesteko lanean jarraitzeko galdegiten digute, gizonak zeregin horretan duten inplikazioari bereziki eta zuzenean dei eginez. Beharrezkoa da denok konpromiso aktiboa hartzea, matxismoa betikotzen duten jokamolde normalizatuak, norberarenak edo besteenak, identifikatuz eta desagerraraziz. Bereziki saihestezina da gizonak aurrerapauso bat ematea eta egoera horiek betikotzen dituen konplizitatearekin amaitzea.

Horregatik guztiagatik, adierazpen hau bultzatzen dugun Tokiko Entitateek honako hau adierazten dugu:

- Gure arbuioa emakumeen aurkako indarkeria-mota ororekiko, edozein arlo eta testuingurutan.

- Gure konpromisoa, Administrazio Publiko garen aldetik, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak desagerrarazteko lanean jarraitzeko, bai eta tokiko entitateen agenda politikoan emakume eta neskatuen indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubidea bermatzen

manera específica la violencia sexual, está presente en todas las esferas de nuestra sociedad y sabemos que en muchas ocasiones estas agresiones no son denunciadas. Esta violencia se manifiesta en las relaciones de pareja, en los hogares, en los espacios digitales, en el deporte, la política, los medios de comunicación, en el entorno laboral, las asociaciones, los espacios de ocio, las calles... y se cimienta en la normalización de las actitudes machistas, los discursos negacionistas y la complicidad o indiferencia de los hombres, entre otras. Todas ellas son resistencias a los avances logrados por el feminismo para alcanzar la igualdad entre mujeres y hombres.

La violencia contra las mujeres se perpetúa a través de la normalización de muchos comportamientos. Lo vemos y escuchamos a diario en comentarios como “ahora para ligar hay que firmar un contrato”, “solo fue un beso, ¡no es para tanto!”, “no se os puede decir nada, ¡todo os ofende!”, etc. Estos son solo algunos ejemplos de los discursos negacionistas y cómplices con la violencia y que nos interpelan a seguir trabajando para alcanzar una igualdad real y efectiva haciendo un llamamiento expreso y directo a la implicación de los hombres en esta tarea. Es necesario que todas y todos nos comprometamos activamente, identificando y erradicando aquellos comportamientos normalizados, propios y ajenos, que perpetúan el machismo. Es especialmente ineludible que los hombres den un paso adelante y acaben con la complicidad que perpetúa estas situaciones.

Por todo ello, las Entidades Locales que impulsamos esta declaración manifestamos lo siguiente:

- Nuestro rechazo hacia todas las formas de violencia contra las mujeres, en cualquier ámbito y contexto.

- Nuestro compromiso como Administraciones Públicas a seguir trabajando en la erradicación de las desigualdades entre mujeres y hombres, así como en la incorporación en la agenda política de las entidades locales medidas que garanticen el



BERA

AKTA 2023-11-21 (OSOKO BILKURA/PLENO) - SEFYCU 22714

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/> 16tik 12 orrialdea

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWHN 2YUJ QVAX M3RE



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22

SINATZAILEA

Berako Udaleko Jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURUJEGANA
2023/11/22

duten neurriak txertatzeko ere, emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin eta herritarrekin elkarlanean.

- Gure ardura, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean koordinatuta jokatzeko tokiko protokoloak bermatzeko, sentsibilizazioaren, prebentzioaren, arretaren, esku-hartzearen eta erreparazioaren arloetan lan iraunkorra ginez.

- Gure konpromisoa erasotutako edo eraildako emakume eta neskatuekin, baita horien seme-alabekin ere, sexu-indarkeriari aurre egin behar izan baitiete.

- Gure interpelazio zuzena adin guztietako gizonei, konpromisoak har ditzaten eta emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurka aktiboki ager daitezten.

- Gure deia eta aitortpena herritarrei, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko bidean haien arbuioa eta konpromisoa adierazten jarrai dezaten, indarkeria horren agerpen guztiak salatzen, haren oinarri diren eta emakumeen eta nesken bizitza eta askatasuna baldintzatzen duten jarrerak agertaraziz eta herritarrek gonbidatzea azaroaren 25aren inguruan antolatzen diren jarduera guztietan parte hartzera.

9. MOZIOA: PALESTINAREN GAINEKO SETIOA.

Alkateak mozioaren edukia aurkeztu du.

Gaia eztabaidatu ondoren, eta akordioaren 1. puntua Herrirako taldearen proposamenez birformulatu ondoren, **aho batez** ONETSI DA honako mozio hau:

Palestinar erresistentziak urriaren 7an egindako erasoaz geroztik, Israelgo indar armatuek orain arte ere etengabea zen Palestinarren aurkako jazarpena handitu dute,

derecho de las mujeres y niñas a una vida libre de violencias, en colaboración con los colectivos de mujeres y feministas y la ciudadanía en su conjunto.

- Nuestra responsabilidad para garantizar los protocolos locales para la coordinación de la actuación ante la violencia contra las mujeres, con el trabajo continuo en los ámbitos de sensibilización, prevención, atención, intervención y reparación.

- Nuestro compromiso con las mujeres y niñas agredidas o asesinadas, así como con sus hijas e hijos que enfrentan o han enfrentado violencia sexista.

- Nuestra interpelación directa a los hombres, de todas las edades, para que asuman compromisos y se posicionen activamente contra todo tipo de violencia hacia las mujeres.

- Nuestro llamamiento y reconocimiento a toda la ciudadanía para que sigan mostrando su rechazo y compromiso con la erradicación de la violencia contra las mujeres, denunciando todas las manifestaciones de ésta, señalando aquellas actitudes que la cimientan y condicionan la vida y libertad de las mujeres y niñas, así como nuestra invitación a participar en todas las actividades que se organicen en torno al 25 de noviembre.

9.- MOCIÓN: ASEDIO SOBRE PALESTINA.

El alcalde presenta el contenido de la moción.

Debatido el asunto, y tras reformularse el punto 1 del acuerdo a propuesta del grupo Herrirako, **por unanimidad** SE APRUEBA la siguiente moción:

Desde la ofensiva de la resistencia Palestina el pasado 7 de octubre, las fuerzas armadas israelíes han aumentado su hasta ahora constante hostigamiento a los palestinos, el más





SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/11/22

Gazan gogorren, baina Palestina osoan.

Israelek hildakoen kopuruak goiti egiten jarraitzen du etengabe, eta Israelek proklamatu duen erabateko gerra-deklarazioak eta bere gobernuak iragarritako oinarritzko horniduren blokeoak muturreko zaurgarritasun-egoeran utzi ditu Gazako herritarrak. Azken hauek hainbat hamarkada daramatzate setiopean, Israelek palestinarren lurak legez kanpo okupatzearen ondorioz.

UNRWak (Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia) baieztatzen duen bezala, Gazan ikusten ari den suntsipen mailak ez du aurrekaririk, animaleko giza tragedia da. Nazio Batuek proportzio epikoko hondamendi humanitario gisa deskribatu dute. Hildakoen kopuruak gora egiten jarraitzen du, modu ikaragarrian. Milaka heriotza zenbatu dira, horietatik aunitz zibilak, eta tartean milaka haur.

Milioi bat pertsona, Gazako biztanleriaren erdia, Gazako iparraldetik hegoaldera desplazatuak izan dira. Hala ere, hegoaldea ez da bombardaketetatik libratu, eraso kopuru handi bat izan baita. Ez dago toki segururik Gazan.

Arestian aipatutako guztiagatik, Berako Udalak:

1. Irmo arbuiatzen du biztanleria zibilaren aurkako eraso oro —edozein aldetatik etorrita ere—, eta elkartasuna adierazten die biktima guztiei eta haien hurbilekoei. Kolektibo ahulenetako kide diren biktimak.

2. Eskatzen du Gazako Lerroaren eta Palestinako lurralde guztien gaineko setioa eta bombardaketak gelditzea, bai eta laguntza humanitarioa sartzen dela bermatzea eta korridore humanitarioak bermatzea.

3. Uste du bake justu eta iraunkorrak herri palestinarraren aurkako okupazioa amaitzea eskatzen duela.

duro en Gaza, pero en toda Palestina.

Israel sigue elevando sin cesar el número de muertos y la declaración de guerra total que Israel ha proclamado y el bloqueo de suministros básicos anunciado por su gobierno ha dejado a la población de Gaza en una situación de extrema vulnerabilidad. Estos últimos llevan varias décadas bajo asedio debido a la ocupación ilegal de tierras palestinas por parte de Israel.

Tal y como afirma la UNRWA (Agencia de Naciones Unidas para los refugiados palestinos), el nivel de destrucción que se está observando en Gaza no tiene precedentes, es una tragedia humana de extraordinaria magnitud. Naciones Unidas lo ha descrito como una catástrofe humanitaria de proporciones épicas. El número de muertos sigue aumentando de forma escalofriante. Se han contabilizado miles de muertes, entre ellas, muchos civiles, y miles de niños y niñas.

Un millón de personas, la mitad de la población de Gaza, han sido desplazadas del norte de la franja hacia el sur. Sin embargo, el sur no se ha librado de los bombardeos, con un número considerable de ataques. No hay ningún lugar seguro en Gaza.

Por todo lo mencionado anteriormente, el Ayuntamiento de Bera:

1. Rechaza de manera contundente cualquier ataque premeditado contra la población civil —venga del lado que venga—, y manifiesta su solidaridad con todas las víctimas y sus personas allegadas. Víctimas que forman parte en su mayoría de los colectivos más vulnerables.

2. Solicita el cese del asedio y los bombardeos sobre la Franja de Gaza y el conjunto de los territorios palestinos, así como garantizar la entrada de ayuda humanitaria y la apertura urgente de corredores humanitarios.

3. Considera que una paz justa y duradera exige acabar con la ocupación contra el pueblo palestino.



BERA

AKTA 2023-11-21 (OSOKO BILKURA/PLENO) - SEFYCU 22714

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/> 16tik 14 orrialdea

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWHN 2YUJ QVAX M3RE



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22



SINATZAILEA

Berako Udaleko Jarduneko Alkatea.
AITOR ELEXPURUJ EGAÑA
2023/11/22

4. Premiazkotzat jotzen du elkarrizketa-prozesu bat abian jartzeko beharrezkoak diren neurri guztiak babestea, bake-egoera justu, egonkor eta iraunkorra lortzeko, okupazioaren amaiera eta Palestinako herriak autodeterminaziorako duen eskubidea bermatuz. Hori guztia Nazioarteko Zuzenbidean eta NBERen ebazpenak betetzean oinarrituta.

5. Eskatzen dio Nafarroako Gobernuari lurralde palestinarrean diharduten instituzio eta erakunde ezberdinekin lanean jarraitzeko eta indarrean dauden lankidetzak proiektuak eusteko. Halaber, Palestinako herriari laguntza humanitaria bermatzeko erreferentziatzeko UNRWA agentzia ere babesten du.

6. Eskatzen dio Nafarroako Gobernuari Israelekin dituen harreman diplomatiko, ekonomiko, akademiko edo ezein kolaborazio alde batera utzi ditzala.

7. Dei egiten die beratarrei Israeli boikota egiteko nazioarteko mugimenduekin bat egin dezaten. Dei egiten die ere, Palestinari elkartasuna adierazteko ekimenetan parte har dezaten.

10. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatezaren ebazpen hauen jakinarekin gainean geratu dira:

- Bandoak: B20/2023 zenbakidunetik B24/2023 zenbakidunera.

- Ebazpenak: 300/2023 zenbakiko ebazpenetik (2023-10-13) 348/2023 zenbakiko ebazpenera arte (2023-11-16).

11. ESKAERAK ETA GALDERAK. GAINERAKO UDAL ORGANOEKIN KONTROLA.

Ez dira izan.

4. Considera urgente apoyar todas las medidas necesarias para poner en marcha un proceso de diálogo que busque un escenario de paz justa, estable y duradera, garantizando el fin de la ocupación y el derecho del pueblo palestino a la autodeterminación. Todo ello basado en el Derecho Internacional y en el cumplimiento de las resoluciones de la ONU.

5. Insta al Gobierno de Navarra a continuar trabajando con las diferentes instituciones y organismos que operan en territorio palestino y a mantener los proyectos de cooperación vigentes. También manifiesta su respaldo a agencias como la UNRWA, de referencia para garantizar la ayuda humanitaria al pueblo palestino.

6. Insta al Gobierno de Navarra a abandonar sus relaciones diplomáticas, económicas, académicas o cualquier colaboración con Israel.

7. Hace un llamamiento a los y las beratarra a unirse al movimiento internacional para boicotear a Israel. También les hace un llamamiento para que participen en iniciativas de solidaridad con Palestina.

10.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

- Bandos: número B20/2023 a B24/2023.

- Resoluciones: desde la Resolución nº 300/2023 (13-10-2023) hasta la nº 348/2023 (16-11-2023).

11.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

No se formulan.





SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/11/22

Beste aztergairik izan gabe, 21:10ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

Sinadura digitalak. Idazkaria eta alkatea.

No habiendo más asuntos que tratar, el alcalde levanta la sesión a las 21:10 horas, lo que yo, el secretario, certifico.

Firmas digitales. Secretario y alcalde.



SINATZAILEA

Berako Udaleko Jarduneko Alkatea.
AITOR ELEXPURU EGANÍA
2023/11/22



BERA

Egiatzapen-aseguru kodea: 3AAA AWHN 2YUJ QVAX M3RE

AKTA 2023-11-21 (OSOKO BILKURA/PLENO) - SEFYCU 22714

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/> 16tik 16 orrialdea